

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak Salestarren dorreak 13 solairutara murriztea proposatu du lehen enkantean esleitu gabe geratu ziren loteetan

Proposamenak alderdi guztien adostasuna behar du, eta "denok bilatzen ditugun helburuen zati handi bat lortzen duen irtenbide partekatu honetan" ados jartzea eskatu die"

Asteazkena, 2017.eko irailak 20

Salestarren lursailen enkantearen behin-behineko emaitza aztertuta, eta alderdi guztientzat ona den irtenbide bat bilatzeko, Nafarroako Gobernuak proposamen bat egin du. Horrela, proiektuko bi dorre garaileen altueraren murrizketa nabarmena egingo da, eta gehieneko solairu kopurua 13tan ezarri du. Beraz, lehen fasean dagoeneko esleitutako eraikinekin parekatuko da.



Karlos III. etorbidera begira dagoen Nafarroako Jauregiko fatxada.

Miguel Laparrak, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak, gaur jakinarazi dio foru gobernuari proposamena, eta alderdi guztiak ados egotea eskatzen du. Hori dela eta, Iruñeko udalari eta Salestarrei "denok bilatzen ditugun helburuen zati handi bat lortzen duen irtenbide partekatu honetan" ados jartzea eskatu die. Helburuen artean daude puntako LHko ikastetxe berri bat, eta irabaziak, ikastetxearen kostuari aurre egiteko erabiltzeaz gain, etxebizitza sozialerako eta hirigintza- eta paisaia-eragina ahalik eta txikina izateko ere erabiliko dira.

Nafarroako Gobernuak hauxe adierazi du: "proposamenak ez du arriskurik ekartzen diru-kutxa publikoetarako. Dagoeneko enkantean atera diren 4 loteen lizitazioaren gaintik % 20a lortu izanak, eta hurrengoetarako itxaropenek, gehi hitzarmen berriaren xehetasunek, horrela erakusten dute". Hauxe gaineratu du: "proposamen hau bat dator beti esan dugunarekin: jatorrizko proiektuaren hirigintza- aprobetxamenduak gehiegizkoak zirela. Horrez gain, enkantearen lehen fasearen emaitza ona izan denez, gizarte-etxebizitza planerako beharrezkoa den gizarte-konpentsazioa gordetzen dute, LHko ikastetxe berria bermatzen da eta auzibidera jotzeko arriskua argitzen du".

Eragin bisualaren murrizketa

Nafarroako Gobernuak Salestarren Planaren P3 eta P8 lursailen dorreen gehieneko garaiera 13 solairura murrizteko azterketa teknikoa

bideratzea eskatuko dio Nasuvinsari (gainerako eraikinekin parekatzen den eta marjina ekonomikoak ahalbidetzen dituen gehieneko murrizketa posiblea), Plan Berezia alde bakarrean aldatu behar izan gabe, eta beraz, hitzarmena eta hartutako konpromisoak betez. Horrek, eraikitako azalera 3.800 metro koadrotan txikiagotzea ekarriko du bizitegi-erabileran (% 8 inguru).

Laparra lehendakariordeak bilkuraren ondoren egindako prentsaurrekoan jakinarazi duen moduan, "Gobernuaren helburua Salestarren PSISen izapide guztian ez da inoiz izan dirua biltzea; beti nahi izan du legezko betebeharrak bete, herritarrak kalte-ordain handiak ordaintzeko arriskutik libre uztea, hitzarmenaren baldintzak zuzendu -ahal izan den neurrian-, interes publikoen alde, Salestarren gainbalioak Lanbide Heziketako zentro berriaren kostura mugatzea eta gizarte-konpentsazioaren bidez etxebizitza soziala eraikitzea". "Solairuak aldatzeko proposamen honek helburu horiek guztiak betetzen ditu, eta horiei, dorreen eragin bisualaren zuzenketa eta erabilera publikorako azalera-aprobetxamendua ere gehitu behar zaie".

Proposamena egiten den momentuari dagokionez, Gobernuak adierazi du 2. eta 5. loteak esleitu gabe geratu eta gero, aldaketa partzialak egiteko aukera sortzen dela, "orain Nasuvinsa sozietate publikoak hurrengo faseetarako baldintzak ezar ditzakeelako".

Kuantifikazio xehatuagoa egin beharko den arren, proposamenak diru-sarrerak 5 milioi euro inguruan murriztea ekar lezake, "alderdi guztiek esfortzua egiten badute, onar daitekeen kostua". Hori horrela, Gobernuak hauxe adierazi du: "alderdi guztiek, hots, Nafarroako Gobernuak, Salestarren Kongregazioak eta Iruleko Udalak erantzukizunez jokatzeko badugu, eta prest agertzen bagara kostuen zati bat gain hartzeko eta proposamen horren garapena errazteko, alderdiok proposatu ditugun helburu nagusiak lor ditzakegu; puntako LHko zentro bat izatea, gizarte-konpentsazioa etxebizitza sozialeko planaren beharra asetzea eta udalak, hirirako zuzkidura publiko berria eta dagozkion gainbalioak izateaz gain, ahalik eta gehien arin dadila jatorrizko proiektuaren paisaia-eragina".